

## 13.PRAKTIKA

## KONTAKTU GILTZA



ERRAMINTA /  
LANABESA

- PINTZA
- AMPEREMETRIKOA
- MULTIMETRO DIGITALA



MATERIALA

- TENTSIO ITURRIAK
- KROKODILODUN BANANAK
- LANPARADUN DADOAK
- ETENGAILUAK
- BATERIA
- FUSIBLEAK
- IBILGAILUEN ERRELEAK
- IBILGAILU LANPARAK

### HELBURUAK:

- **Kontaktu giltza nola dabilen ikastea**
- **Erreleen erabilera ikastea babes elementu moduan**
- **Fusibleak babes elementu moduan erabiltzen ikastea**
- **Kommutagailu eta etengailuei buruz ikastea**



BABES  
NEURRIAK

- Neurketa gailuak ez kolpatu.
- Voltmetroa eskala egokian jarri.
- Gailu didaktikoak errespetuz erabili.
- Eskularru isolatzaileak erabili.


### GARAPENA:

01. Idatzi **30**, **ACC**, **15**, **50** eta **X**, kable muturrak/buruak adierazi ondorengo eskema elektrikoan.


- 30 = BATERIA:** Uneoro elikatuta dauden zirkuitu elektrikoak. Bateriaren borne + zuzenean loturik dagoen puntu elektriko adierazten du.
- ACC = Ibilgailuaren osagarriak:** kontaktu giltzaren aurreneko puntuan elikatzen diren zirkuitu/sistema elektrikoak: irratia, ibilgailu barruko ordenagailua, DVDa,...
- 15 = KONTAKTUA, motorraren oinarrizko sistema laguntzaileak:** ibilgailuaren motorra piztuta mantentzeko oinarrizkoak diren zirkuitu elektrikoak: pizte sistema, instrumentu taula, K.Unitateak, injekzio sistema,...
- X = ibilgailuaren sistema elektriko lagungarriak:** gidatzen gaudenena laguntzen gaituzten sistema elektriko lagungarriak: aurreko eta atzeko

kristal garbigailuak, kristal lurruna desegiteko haizagailua, atzeko kristaleko lurrun-aurkako erresistentzia termikoa, leiho-igogailuak,...

e. **50 = ABIOA**: abio motorra pizten duen zirkuitu elektrikoa.



02. Esku artean duzun kontaktu-giltza begiratu.



a. Polimetroa erabiliz kontaktu giltzaren kable bakoitzak zer zirkuitu elikatuko duen adierazi. (30, Acc, 15, X...). Ondoren adierazi beheko taulan zein kable dagoen elikatuta giltzaren posizio bakoitzean.




- Zein kolore du bateriaren positibotik (30) datorren elikadura kableak? Bakarra al dago?
- Zein kablek elikatzen du OSAGARRIAK +Acc zirkuitua, zein kolore du?
- Zein kablek elikatzen du KONTAKTUA +15 zirkuitua, zein kolore du?

- Zein kablek elikatzen du KONTAKTUA +15A / X zirkuitua, zein kolore du? Baldin badago
  
- Zein kablek elikatzen du ABIOA +50 zirkuitua, zein kolore du?

	KONTAKTU-GILTZAREN POSIZIOAK		
KONTAKTU GILTZAREN KABLEAK	1 POSIZIOA	2 POSIZIOA	3 POSIZIOA
GEHIGARRIAK			
+15 KONTAKTUA			
+15a / X KONTAKTUA			
ABIOA			



03. Osatu eskema elektrikoa  $L_1$  (55W 12V) lanparak funtzionatu dezan. Osagarrien kabletik elikatuko da zirkuitua.



04. Konekta ezazu aurreko puntuko zirkuitu elektrikoa osagai errealekin

a. Errelearen harilaren erresistentzia neurtu.

$$R = \dots\dots$$

b. Kalkulatu agente zirkuituko korronte teorikoa ( $I_a$ )

c. Biratu giltza 1.go punturaino (gehigarriak). Lanpara pizten da?

d. Korrontea neurtu erreleko **aginte** zirkuituan. Kalkulatoriko balioaren antzekoa da?

e. Zirkuituko lanpara begiratu. Zer balio izendatu (nominal) ditu?

f. Kalkulatu zirkuituko **potentzia** teorikoa.

g. Lanparatik dabilen korrontea neurtu giltzaren posizioa 1.go puntua denean. Kalkulatoriko balio teorikoaren antzekoa da?

h. Aukeratu potentzia zirkuitua babesteko fusible egokia.



REF.	COLOR	AMP.
FU - 38	Negro	1 A.
FU - 39	Gris	2 A.
FU - 28	Morado	3 A.
FU - 29	Rosa	4 A.
FU - 30	Naranja	5 A.
FU - 31	Marrón claro	7,5 A.

REF.	COLOR	AMP.
FU - 32	Rojo	10 A.
FU - 33	Azul	15 A.
FU - 34	Amarillo	20 A.
FU - 35	Incoloro	25 A.
FU - 36	Verde	30 A.
FU - 37	Ámbar	40 A.

- i. Kalkulatu tentsio iturriak ematen duen korronea (It) .
- j. Neurtu tentsio iturriak ematen duen korronea giltzaren 1.go puntuan.  
Kalkulatoriko balio teorikoaren antzekoa da?

